

Orientazio profesionala orientazio psikopedagogikoaren zati bat da.

1. GAIA: ORIENTAZIO PROFESIONALA edo BOKAZIONALA (EE.UUetan, gehienbat)

7 galdera hauei erantzuteko gai izan beharko ginateke gaia amaitzerakoan.

KONTZEPTUA

Orientazio profesionala ez da zerbait puntuala; ez da ikaslea, ama, langilea... zerbaitekin etortzen zaigunean erantzuna ematea. Nolabait bai, baina definizioz ez. Karreraren garapena bizi-ziklo osoan zehar helburutzat dauka. karrera=erabaki duguna, bokazioz, kompetentziaak garatzeko. Hasten gara jaiotzen garenean, eta hiltzen garenean amaitzen da. Beraz, orientazio profesionala jaiotzen garenetik hiltzen garen arte dago.

Beti pentsatu izan dugu helduekin, gazteekin, langileekin egiten dela, baina baita egin daiteke haurrekin nahiz erretiratuekin.

EZAUGARRIAK:

- Laguntza-prozesu bat da, gizabanakoak behar duena. Izan daiteke zain gaudela jaso behar dutenek galderak guri egitea; baina gu ere aurreratu gaitzke beren eskakizunetara. Modu prebentibo batean ere egin daitezke, alegia.
- Gizabanako guztiei zuzendua dago. Ikasleei zuzendutako orientazio profesionala baita egin daiteke; bere alderdiak landu daitezke, azken batean. Beraz, guztiei zuzenduta; ez bakarrik lanean edo langabezia daudenentzat edo jubilatzeaz daudenei edo dena delakoa.
- Helburua: jokaera bokazionalak garatzea. Gure karreraren garapenean beharrezkoak ditugun jokabideak, gure karrera errazten duten jokabideak garatze aldera. Ikasi eta irakatsi daitezke. Jokabide hauek gaitu egiten dute gizabanakoa bere karreraren garapena bere ardurapean egoteko; hau da, burujabe izateko, eta ez beti besteen menpe (beren eskakizunei etengabe erantzutea eta abar) egoteko. Gizabanakoa helduen mundurako prestatzen du, oro har, baina kompetentea izateko. (242. orrialdean hobe azaldua).
- Esku-hartzea profesionala, jarraia (bizi-zikloan zehar), sistematikoa (aurretik planifikatutakoa) eta teknikoa (teknika eta estrategia ezberdinak erabiltzen dira Aurrera eramateko) da. OPa ebidentzietan oinarritutako jarduera bat da, profesionala, zientifikoa...da.
- Azken helburua: karreraren garapena lortzea. Horretarako, gizabanakoak etengabe garatu behar du bere karrera, jaiotzen denetik hiltzen den arte, egoera edozein izanik ere (erretiratu izan, haurdun egon, eta abar). Hala ere, abagune batzuetan arreta berezia eskaintzen zaio OPari: DBH, batxilergoaren modalitatea aukeratzeko; karrera aukeratu behar dugunean; lan-munduan hastear zaudenean; familia-planifikazioa egiterakoan; jubilazioa; lan-egoerak aldatzean... Kritikoak diren momentuetan arreta berezia.

HIRU TESTUINGURU POSIBLE OPa GERTATZEKO: hezkuntza-mundua, lan- edo erakunde-mundua eta komunitatea (Donostian zergak ordaintzeagatik, Donostian eskaintzen den zerbaitez baliatu ahal izatea).

DIMENTSIOAK edo GAIK: OP burutzen ari garenean, gai bat edo beste landuko dugu jasotzailearekin. Lehneengo praktikan, ikaslearen ezagutzak landu genituen (zein ezagutza dituen..). Zein dimentsio landu genuen? Bere buruaren ezagutza. Beste dimentsio bat: amatasuna/aitatasuna biziko duen persona batekin, zeinak karreraren etetea biziko duen,

planifikazioa lantzea. Lana aldatzea nahi duen batekin zein dimentsio landu: informazioa bilatzea, adibidez.

Hiru modu ESKU-HARTZE eredu orientazioa Aurrera eraman ahal izateko:

- Indibidualizatua edo klinikoa (counseling). Gizabanako bakar batean erdiratzen den esku-hartzea.
- Programa-eredua. Talde bati zuzentzen den esku-hartzea. Helburua prebentiboa da, arazoak larriak izan aurretik.
- Kontsulta-eredua. Bitartekari baten bitartez lantzen da orientazioa orientatuarekin zuzenean izan beharrean. Adibidez: irakasleak formatzen ditugunean ikasleekin elkarrkeintza egokiak izateko.

PRINTZIPIOAK. OP hiru printzipiotan oinarritzen da.

1. Prebentzioa. Izaera proaktiboa du (aurreratu egiten da), egoera gatazkatsuari ekiditearren. "Proaktibo" hitzaren antonimoa "erreaktiboa" da. Egoera gatazkatsua izan daiteke: ikaslea guregana etortzea zalantzekin, adibidez. Nahi duguna da gizabanakoek autonomia maila altuak garatzea eta herstura mailak jaitea. Beraz, profesionalak ez du soilik erreaktiboki erantzun behar behar bati; baizik eta proaktiboki jardun behar du egoera horiek neurri txikiago batean gertatzeko. Arazoa da administrazioak ez duela ikuspuntu proaktiboa, baizik eta erreaktiboa. Horregatik daukagu orientatzaile bakar bat 500 ikasleko ikastetxe batean.
2. Garapena. Gizabanakoak bere nortasun propioa dauka txikitatik. Nortasun hori garatu egin daiteke. Garapen pertsonala, soziala, akademikoa, laborala... izan daiteke. Eta garapen honek, gizabnaakoak gaitasunak bereganatzea ahalbidetzen du. OPk lagundu behar du norbere nortasuna garatzen. Nola? Ingurune horretan garapena oztopatzen duten faktoreak identifikatuz eta horiek aldatzen lagunduz. Horretarako kontziente egin behar diogu gizabanakoari zein ingurunetan bizi den, zein garrantzitsua den ingurunea, eta nola eragiten dion. Adibidez: aldaketa politikoak (katalunian adibidez), gizabanakoaren garapenean aldaketak dakartza. Garapenaren ikuspuntutik OPak lortu behar duena da gizabanakoari laguntzea gaitasunak bereganatzea, oztopatzaile diren faktoreei aurre egiteko.
3. Esku-hartze soziala. Testuinguruko alderdi oztopatzaileak identifikatzea da helburua. Gizabanakoek egiten dugun aldaketa gizartean, ingurunean.

FUNTZIOAK.

Nori zuzentzen zaio? Pertsonai eta sistema ezberdinei. Sistemei dagokienez, adibidea: zerbitzu bat (orientazio profesionalakoko zerbitzua) ezagutaraztea. Ez gara jasotzaileak gu bakarrik; zeren programa bat egin dezakegu zerbitzua bera ezagutarazteko; hau da, zerbitzua bera da jasotzailea.

Beti proaktibo/prebentibotik jokatu behar dugu eta gailendu behar dugu, nahiz eta erreaktiboa/asistentziala ere garrantzitsua den eta bermatu behar den.

Zuzenean bada, programa-eredua. Formakuntza jaso duten bestelako eragileek egiten badute, kontsulta-eredua.

08/11

SALVADOS BIDEOA

Garapena ikusten da bideoa, zeren langabezian egon arren, formatzen jarraitzen du.

Kulturak erabat baldintzatzen du orientazio profesionala.

* * *

TESTUINGURUAK

Hiru testuinguru ezberdin dauden orientazio profesionalaren baitan. Zeren arabera bereizten ditugu: gizabanakoaren bizi-zikloaren etaparen arabera. Hau da, gizabankaok jasotzen badu OP ikasle denean, HEZKUNTZA testuinguruan kokatu dugu. Langilea delako jasotzen badu, LAN-ERAKUNDEAN kokatu genuke. Eta hiritar garelako jasotzen badugu, AISIALDIA testuinguruan. Beraz, hartzailea non kokatzen denaren arabera bereizten dira.

- Hezkuntza. 12-18 urte bitarteko aldeari jartzen zaio arreta. Hezkuntza testuinguruan bi helburu lituzke OPak:
 - Propedeutikoa: testuinguru akademiko batean jarraitzeko helburua duena. Adibidez, gero batxilergoa egitea.
 - Amaierakoa (terminala): gizabanako hori orientatzen da, ez hezkuntza munduan jarraitzeko, baizik eta lan-mundura bideratzeko.

“La educación ha de educar para la vida [...] y dando respuesta a las exigencias de una sociedad en cambio [...]”. OP hezkuntza testuinguruan 12 urte baino lehenago ere OP egin beharko litzateke. Haurrari bere buruaren ezagutza sustatu beharko diogu; bere adinera eta ulermen-mailara egokitu beharko gara, hau da, lanbide ezberdinak daudela azaldu, zer egiten duten... 12 urtetatik Aurrera jada erreaktibo izaera hartuko luke, eta ez dugu bizi-zikloaren ikuspegia aintzat hartzen.

- Lan erakundea. Lanpostuan bertan ematen da. Gizabanakoa lanpostu horretan dagoelako jasotzen du formakuntza edo ekimen bat.
 - Erakundean sartzean zer behar du langileak? Fase horretan, helburua izango da batetik aukeraketa (motibatuta daudenak eta abar) eta bestetik, egokitzapena lantzea.
 - Orekatzea eta aurreratzea. Gizabanakoak lortzen du empresa horretara egokitzea. Eta promozioa eskaintzen zaio: intzertiboak lortzea (dirua, denbora gutxiago lan egin behar izatea soldata bera jasoz, etab). Langile hori baldin badago enpresan sartu berria, eta denbora bat badarama, bere lan-baldintzak hobetzeko aukera eskaintzen ziaio, bai eta formakuntza jarraia lan hori modu hobean garatzeko.
 - Mantentzea eta narriadura. Emozionalki erronkak behar dituen etapa batean gerta daiteke... Batzuek erabakitzen dute lana aldatzea edo karrera uztea. Ildo horretatik, OPak duen helburua da langilea asesoratzea, eta erabakirik egokiena hartzea.
 - Erretiroa planifikatu egiten da; langileak prestatu egiten dira prozesu horretarako, emozionalki eta sozialki, batik bat.

Bigarren fase horretan kokatuko genuke etengabeko formakuntza.

- Aisialdia. Komunitateak erabat baldintzatzen du gizabanako baten hezkuntza-prozesua. Langabezian dagoena agian gerta daiteke ordu gehiago izatea aisialdirako. Baina berdin du: hemen, hiritar garen heinean jasotzen ditugu orientazio profesionaleko programak.
 - Lana hasi aurretik. Ez gaude oraindik lan-munduan, baina presta gaitzke horretarako: bolondres bezala erakundeetan sartuz, edota hainbat ekimenetan parte hartuz, adibidez.
 - Lan-formakuntzaren planifikazioa. (¿?????????????)
 - Erretiroari egokitzea. Pertsona batek bere lana uztean, bere karreraren garapena ez du uzten. Egia da ez diotela ordainduko lan bat egiteagatik, baina garapenarekin jarraitzen du beste zentzu batzuetan.

Testuinguru hauek ez dira ondoz ondokoak. Hau da, gerta daiteke hezkuntzan egon bitartean, lan-erakudeen baitan ere egotea. Edo jubilatua unibertsitatean ikasten ari direnak. Beraz, según orientatua non kokatzen den (testuingurua), horren arabera gauzatuko dugu orientazio profesionala. HELBURU OROKORRA DA: gizabanakoaren karreraren garapena.

ESKU-HARTZE ESPARRUAK

Vocación=deia esan nahi du, eta norbera eta bestea elkartzen ditu. Ez da norbanakoaren baitan kokatzen; norbanakoaren barnean egon daiteke, baina beti interakzioan kanpotik jasotzen dugunarekin. OParen helburuetako bat da, karreraren garapenaren momento askotan beharko dugu jakin zerk betetzen gaituen, zerk sentiarazten gaituen gaitua... OPko programa bat Aurrera eraman nahi dugunean puntu hauek jorratu beharko dira (ordena zorizkoa da):

- Implikazioa eta motibazioa. OP Aurrera eraman nahi badugu, persona hori prestatu beharko dugu; edo hobe esanda, bere ingurunea (empresa...) prestatu beharko dugu. Askotan programa bat martxan jarriko dugu, behar bat dagoela soilik ezagutarazteko. Hau da, entitateak inplikatzeak. Baldintza horiek emango balira, testuinguru hori egokia izango da programa hori martxan jartzeko. Hala ere, batzuetan motibazioa jada bermatua dago hasieratik, beraz urrats hau ez litzateke funtsezkoa.
- Norberaren ezagutza. Gaitasunei dagokienez, ahulagoak diren alderdiei dagokienez... Ezaugarri pertsonalak ditugu (persistenteak, autokontrola, motibazioa, nortasuna, baloreak, bizitza-estiloa...)... Kontziente egin behar dugu persona bere ezaugarri pertsonaletaz. Baina baita bere gaitasun kognitiboetat. Ez da amore emateko, baizik eta hain gaituak ez gauden alderdi horiek lantzeko, adibidez. BIZI-ZIKLO OSOAN ZEHAR EMATEN DA NORBERAREN EZAGUTZA. → POWTOWN BIDEOA
- Infomrazio akademiikoa eta pertsonala. Ikasleak zalantzekin badatoz Ibilbide akademiko eta profesionalen inguruan, beraien inguruan hitz egingo diegu, baina eman beharreko pausuez ohartaraziko diegu.
Orientazioak bilatzen duena da ez bakarrik “honera joan behar duzu, hau desegokia da”, baizik eta persona bera gaitzea jardun horretan. Laguntzea bilaketa-prozesu horretan. Izan ere, beste momento batean hori egin beharko balu, gaituagoa egongo da hori egiteko.
Honen harira, merkatua etengabe aldatze doa. Orain psikologoek beste lan-profil batzuk burut dezakete. Adibidez, zahar-egoitzetan psikologo bat egotea beharrezkoa dela. Horrelako gauzak bilatzea ere bultzatu beharko genieke, zeren agian gu zaharkituak gaude eta ez dugu bilaketak egiten.
- Erabaki-hartze prozesua. jarrerazkoa (motibatuta nago erabaki bar hartzeko?) eta gaitasunezkoa (ea gaitasunak ditudan erabaki hori hartzeko) deritzo. Lhenenegoan, interesa edo motibazioa dagoen ala ez, erabakiarekin inplikazioa egon behar du... eta hori landu egin daiteke. Bigarrena, hartu nahi ditudan erabakiak hartzeko gai naiz ala ez? Ez banaiz, gaitu egin beharko nintzateke.
Edozein erabaki hartu behar dugunean, gomendatzen zaigu, ongi hausnartzea erabakien inguruan, zein ondorio izango dituen, lehentasunak zerrendatu... Hori den abigarren konponentearekin lotuko genuke. Teknika horiek garatu egingo genituzke gibzanakoarekin, bera gaitzeko.

BIZI-PLANGINTZA: funtsezkoa da indargune eta ahulguneak zehaztea, azterketa personal baten ondorio direnak. Zertara bideratuko ditugun gure ahaleginak... Eta beste osagai bai: eginkizuna. Baldin badakigu zerk deitzen gaituen, gure bizitza plangintzan ere

Beraz, hiru osagai bereizten dira:

Azterketa pertsonalaren ondorio diren idnargune eta ahulguneak.

Bokazioa.
Helburuak horretara iristeko.

*Jokaera bokazionalak: pertseberantzia izatea, autoerregulazioa, motibazioa... horiek ez dira lanerako trebetasunen bereganatzea.

EREDUAK

Eredu kliniko (counseling).

Esku-hartze indibidualizatua da. Helburua normalean terapeutikoa da, erremediala, arazo batekin etorri zaigulako, eta hori konpondu beharko dugu. Hala ere, prebentzioaren planoan ere jardungo dugu. Ildo horretatik, gizabanakoa gaituko dugu erabakia bere kasa hartzeko. Harreman personal bat zehazten da orientatzaile-orientatu, terapeuta-pazientea... artean. OPan, helburua izango da OParen inguruko behar hori asetzea: karrera aukeratu behar duela, ez dakiela nola ikasi zeren azterketan oso urduri jartzen da... Horretarako teknika nagusia elkarrizketa da, bai eta egokiena, ziurrenik. Lagunduko diogu beraz erabakiak hartzen hausnarketa bat eginez.

Eredu hau isolatuta ez da batere egokia. Ezin dugu orientazioa Aurrera eraman bakarrik eredu hau erabiliz; beste eredu batzuekin osatu beharko genuke.

Programa-eredua

Badago justifikazio teoriko edo aplikatua. Ebaluatu dezakegu talde baten egoera, eta egoera horretan topatutako erabiltzen ditugu beharrak daudela justifikatzeko. Datuen identifikazio horien emaitza bezala, jarduera batzuk planifikatzen ditugu, behar horiek asetzeko.

Beti talde bati zuzendutako eredua da programa-eredua. Demagun guraso-talde bat ebaluatzen dugula, eta zerrendatzen dira bost behar. Ebaluatzaileak behar bat hartu, eta beraz asetzeko prozesu bat zehaztu beharko du, teoriak/ikerketek jantzita.

OPan erdiratuta, eredu teoriko asko daude. Guk Super eta Holland aztertuko ditugu. Biak dira psikologia dinamikotik eratorriak.

Super-en eredua. Prozesuzko eredua, edo fenomenologikoa, edo garapen diferentzialaren eredua ere deitzen zaio. Hautaketa bokazionalaren oinarrian autokontzeptua dagoela esaten digu. Edo norbere autokontzeptuaren azalpena izango dela hautaketa bokazionala. Hau da, segun zein autokontzeptu daukagun, hautaketa bate do beste egingo dugula. Gizabankao bakoitzara jo gabe egiten du etapa bidezko sailkapen bat; hau da, autokontzeptua nola azaltzen da? Pertsona bakoitzak bat dauka, claro, baina esaten du normatiboki gibzanakoa segun zein etapatan dagoen, autokontzeptua modu batean edo bestean azaltzen dela. Hots, autokontzeptua modu ezberdinean azaltzen da, segun gizabanakoa garapenaren zein etapen dagoen. Berak bost etapa edo estadio hauek zehaztu zituen.

- Hazkundera (0-14 bitartea). Honen baitan hiru atal: fantasia, interesa eta gaitasuna.
- Esplorazioa (15-25). Tanteo (15-16 urte bitartean), trantsizioa (18-21): barneratuta daukagun errealtate faktore edo aldagaiak, eta pixkana lan- eta formakuntza-munduan sartzen da eta bere autokontzeptua egonkortzen saiatzen da; eta entseia (22-24).

- Baieztapena (25-44): aukeraket aegin dugu bokazioaren arabera, eta egonkortu egiten gara.
- Mantentzea (45-64).
- Gainbehera (65-).

***Garrantzitsua.** Super-en arabera (psikologo dinamikoa), gure autokontzeptuarekin kongruentea izaten ahalbidetzen digun lanbidea aukeratuko dugu. Hau da, asebeteta sentituko gara, lanbide horretan naizen bezala adierazten eta garatzen uzten badidate. Ezaugarri pertsonalak azaltzeko aukera eman behar didate. Laburbilduz, gure autokontzeptua garatzen uzten digun lanbidea aukeratuko dugu.

Maslowekin (humanista) lotuz, lanbidea hartuko dugu autoerrealizaziorako erraztatzaile edo oztopatzaile bezala.

Nerabezaroan ematen da autokontzeptuaren finkapen ia osoa, eta hortik Aurrera nahiko estable jarraitzen da. Nerabea fantasia-mundutik irten da, eta errealitatearen eta norberaren ezaugarriez kontziente da, ideia errealagoak ditu. Esan dugunez autokontzeptua dela hautaketa bokazionalaren oinarria, horregatik ematen zaio hainbeste garrantzia nerabezaroan lantzeari.

Gizabanakoak daukan jokaera bokazionala espero da bere adinarengatik kongruentea izatea. 25 urteko bat tanteatzen baldin badago oraindik, ez du heldutasun bokazionalik. Kongruentzia egon behar da bera denaren eta beregandik espero denaren (adinagatik, baldintzengatik...) artean.

Hollanden eredua (psikologo dinamikoa)


Gehitzen du ingurunearen aldagaia. Inguruneak eta berarekiko elkarrekintzak garrantzia handia daukate. Bere eredua eredu estrukturala da, baina tipologikoa ere deitzen zaio; izan ere, nortasunaren tipología bate giten du. Bere ustez hautaketa bokazionala nortasunaren eta ingurunearen elkarrekintzaren onodorio da. Hala, sei nortasun mota bereizten dizkigu (ez dira ikasi beharrik).

Orientatzaileak lagunduko nuke nortasun-tipoa zein den deskubritzen laguntzea gizabnaakoari. Hori litzateke bere funtzioa. Zergatik? Bere ustez nortasun tipo bakoitza ingurune konkretu batekin erlazionatzen dela uste duelako.

Heldutasun bokazionala, bere arabera izango da: nortasun mota/tipo eta ingurune profesionalaren artean ematen den kongruentzia-maila.

Berak gehitzen du lanbide bakoitzean gure nortasunarekin zerikusia duten pertsonak topatzen ditugula.

ORIENTATUA



Aurreko bi ereduek ez dira nahikoak. Askotan testuinguru ezberdinetan martxan jartzen da kontsulta eredua emaitza hobek lortzeko. Helburua orduan da, hor jartzen duen bezala, **zeharkako** esku-hartze bat burutzea. Hirugarren hori, orientatua, ez da zertan persona bate do persona-talde bat izan; izan daiteke erakunde bat, zerbitzu bat, empresa bat.

Esaten dena da harreman triadikoa ezartzen dela. Baina alde bat (orientatua eta orientatzailea lotzen dituen) ez da zuzena; ez da benetan ematen. Kontsulta-ereduan ez da erlazio hori ematen zuzenean, baizik eta zeharka, bitarteko eragileen bitartez. Hemen, normalean, beharra azaltzen duena bitartekoa izaten da. Adibidez: gurasoak esatea beren seme-alabek behar dutela ez dakit zer. **Administrazioak zailtzen du programa-ereduak jartzea(¿)**

Hasieran badirudi programa-ereduak epe motzean diru gehiago eskatzen duena. Baina epe luzera, frogatua dago..... Gaur egun gure gizartean erremediala da nagusi.

2. GAIA: ORIENTAZIO PROFESIONALA

Autore ezberdinen artean borroka dago terminologiaren inguruan.

Laguntza (acompañar; zeren ayudar-ek eragiten du menpeko bat egotea) prozesu jarrai bat da. Ahalik eta ekimen gehienak orientatuari utzi behar dizkiogu. Jarraia da: orientazioak bizi-zikloaren ikuspegia hartzen baitu. Integratua eta integrala: hainbat alderditan soziala, emozionala, psikologikoak, lan-mundukoa... Pertsona guztiei zuzentzen zaiena: ez bakarrik arazoak dituzten pertsoneri, desabantailan dauden pertsoneri... GUTZIEI eskaintzen zaien zerbait da. Helburu orokorra da gizabanakoaren alderdi ezberdinen garapena bermatzea.

Zer da orientazio psikopedagogikoa? Alor ezberdinak barne hartzen dituen esku-hartzea: orientazio profesionala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen orientazioa (prozesu hauek optimizatzea helburu duena), aniztasunari arreta; eta prebentzio eta garapenerako orientazioa.

Zeintzuk burutzen dute? Orientazio eragileek. Hau da, ez bakarrik orientatzaileek. Batzuetan ez da orientatzailea OPSikoPeagogikoa aurrera eramaten duena. Adibidez: familia, medikua, kale-hezitzailea, empresa bateko zuzendaria...

Nola? Ereduaren arabera: indibidualizatua, programa-eredua eta kontsulta-eredua. Beti da beharrezkoa planifikazio eta egitea. Eredu bi edo hiru egitea gomendagarria litzateke. Jarrera nagusia izango da programa-eredua burutzea: prebentzioa bermatzen duelako, taldeei zuzenduta dagoelako, merkeena delako... Programa-eredua osatuko edo indartuko dugu kontsulta-ereduarekin.?

Noiz? Bizitza osoan zehar burutzen da. Zergatik? Gizabanakoa garapenean dagoelako etengabe. Garapen-prozesu horretan etengabe dagoenez, edozein momentutan izan dezake laguntza baten beharra, orientazioa jaso behar izatea.

Non? Hemen akats bat dago: hezkuntza testuingurura mugatzen dugu askotan. Ezin dugu mugatu orientazioa hezkuntzaren-testuingurura, zeren ez gara bizi-zikloaren ikusputua onartzen ari. Beraz, diapositibetako edukia.

ZERGATIK? Hezkuntzan, ikaslea delako. LANean, langilea delako. ERKIDEGOAN: hiritar direlako. FMAILIA: familia bateko kide direlako. Testuinguruen sailkapena ez da orientatzailearen kokapenaren arabera, baizik eta orientatuaren kokapenaren araberakoa. Beste modu batera esanda: testuinguru guzti hauek osagarriak dira (ez excluyenteak). Nik jaso dezaket programa bat ikasle naizelako, bai langile naizelako, bai hiritar naizelako. Bizi-zikloan zehar baldintza horiek aldatuz joan daitezke.

ESKU HARTZE EREDUAK

- Klinikoa. Norbanakoari bakarrik eskaintzen zaio arreta, elkarrizketa da gehien erabiltzen den teknika.

- Programa: prebentzioa lantzeko modurik egokiena (nahiz et akontsulta eredu ere izan daitekeen, ongi planteatuz gero).
- Kontsulta. Formakuntza bat egiten dugu, gero bitartekariak orientazioa egin ditzaten, baina orientatzaileak ez. Bitartekoak kontsulta bate do arazo azaleratzen dute, eta orientatzaileak diseinatzen du modu bat behar horri erantzuteko, baina zeharka.

OPPa historikoki orientazio profesional bezala hasi zen XX. Mendearen hasieran (1920 inguruan). EEBBetan hasi zirenean orientazioarekin, OP zen, besterik ez (han Orientazio BOKAZIONALA zeritzona). Gero, ikuspuntu zabalago bat hartu zuen. Hasi zen ikuspegi erremedial batekin: gizabanakoak erabaki zehatz batzuk hartu behar dituzte, orduan egiten zen orientazio bokazionala.

Gero, ikuspuntu zabalago batekin, OBak bizi-zikloaren ikuspegia barneratzen da. Orientazio bokazionalaren ondoren, eta Hezkuntza derrigortzen denean (1945-50), bigarren alor bat garatzen hasten da: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen orientazioa. Lehenago ez zuen zentzu askorik zeren ez zen jende asko joaten, baina hemendik Aurrera bai. ZEn ardura artzen du? Ez bakarrik karreraren garapena, baizik eta ikaskuntza-abileziak eta -teknikak (garai horretan konduktismoa zen nagusi, kontuan hartu). Ikaskuntza metodoetan oinarritzen da orientazioa, beraz.

Ondoren, aniztasunari arretarekin erlazionatzen den alorra garatzen hasten da. Badago momento bat gizartean, non onartzen den ikasleak anitzak direla, ezaugarri ezberdinak dituztela, eta hortaz, behar ezberdinak dituztela. Zerk egiten gaitu anitzak? Nortasunak, kulturak, egoera sozioekonomikoak, gaitasunak, fisikoak, motibazioak... Aniztasuna hainbat baldintza eta ezaugarrietatik etor daiteke.

Azkenik, prebentziorako eta giza-garapenerako orientazioa. Desastre-kajoia litzateke. 70. Hamarkadatik Aurrera garatzen da. Hainbat gai jorratzen dira bertan: osasunerako hezkuntza (80. Hamarkadan asko zabaldu ziren, drogen hedapenagatik, HIESaren hedapenagatik, jokabide sexual arriskutsuengatik...), adimen emozionala, trebetasun sozialak, hiritartasunerako hezkuntza... Berriak diren proposamenak barneratzen ditu alor hauek. Aurreko hiruak nahiko tradizionalak dira.

Alor guzti hauek elkar erlazionaturik daude. Elkarlotura honek ematen dio nortasuna gure jakintza-gaiari (orientazio psikopedagogikoari). "Gerta daiteke programa bat garatzea orientazio profesionalerako (1.alorra). Prestatzen dugu programa hori, baina hezkuntza behar espezifikoak dituzten ikasleei zuzendutakoa (3. Alorra). Gainera, bertan, ikaskuntza autonomorako gaitasunak alntzen dira (2.alorra); eta honekin, giza-garapenerako funtsezkoak diren osagaiak lantzen ditugu (4.alorra). Hala, orientatzaileak en mente izan behar du hauetako bat bereziki lantzen duen arren, besteak ere lantzen dituela, askotan. Beraz, gerta daiteke, alor ezberdinak esku-hartze berean integratuta egotea.

Era berean, orientazio psikopedagogikoak eskatzen du beronen alor ezberdinen artean loturak egotea. Hau da, ezin gara espezializatu orientazio profesionalan, eta beste hirurak alde batera utzi. Denetaz jakin behar du, nahiz eta baten batean gehiago erdiratu.

ORIENTAZIOAREN DEFINIZIO ANABASA

Horretarako, Bennen diagrama erabiltzen da. Orientazioa sortzen da OP bezala, eta gero, bere esku-hartze esparrua zabaldu egiten da profesionala / bokazionala den eremutik, beste batzuetara, lehen esan bezala. Orientazioak (ezkerreko borobila) bi dimentsio dituela esaten da: bata teorikoa eta beste praktikoagoa. **Dimentsio praktikoari autore batzuek esku-hartzea deritzote.** Aitzitik, **dimentsio teorikoari orientazioa** deitzen diote.

Normalean esku-hartzea profesional batek burutzen du; edo kontsulta-eredua bada, paraprofesional batek (hau da, formakuntza jaso duena profesional batetik, eta honen superbisioaren inguruan jarduten du gero). Autore gehienek esaten dute esku-hartzearen helburua zuzentzailea dela, erremediala (esku-hartze psikohezitzailea). Kasu arazotsuen tratamendua, hots. Hala ere, helburua ere izan daiteke prebentiboa; are gehiago, guk hori defendatzen dugu. Esku-hartzeak helburutzat prebentzioa badu: ORIENTAZIOA deritzaio (eta ez esku-hartze psikohezitzailea).

Orientatzailea izan daiteke psikologoa edo pedagogoa. Nahiz eta funtzio berdina izan, ezberdin deitzen diote egiten dutenari. Psikologoek esku-hartze psikopedagogikoa eta aholkularitza hitzak erabiltzen dute; aitzitik, pedagogoek, orientazio hitza erabiltzen dute. Baina funtsean gauza berdinei buruz hitz egiten ari dira.

Hezkuntzako kurrikulumarekin zerikusia duten gauza egiten badugu, funtzio horiek aholkularitza izena hartuko lukete. Beraz, "aholkularitza" terminoa lotuta dago kurrikulumarekin.

Legediak, esku-hartzea hezkuntza behar bereziarekin lotzen du. Beraz, esku-hartzea lotuko luke legediak, arazo-kasuekin. Beraz, esku-hartzea terapeutikoa edo erremediala litzateke, eta eredu indibiduala erabiliz. Beraz, nahiko pobrea. MEC legediak esaten du hezkuntza-testuinguruan irakasleak egiten dituen gauza batzuk (tutoretzak, gomendioak ematea...) orientazioa dela, eta ez esku-hartzea.

- Laburtuz, daukagu orientazioa (dimentsio praktikoa: esku-hartzea; teorikoa: orientazioa).
- Esku-hartzeak helburu zuzentzailea: esku-hartzea. Helburua prebentzioa: orientazioa.
- Psikologoek esku-hartzea eta aholkularitza (batez ere kurrikulumaren funtzioak betetzen baditu). Eta pedagogoek orientazioa.
- Amaitzeko, legediak, esku-hartzea terapeutikoa. Ez du ulertzen esku-hartzea prebentiboa izan daitekeenik. Irakasleak egiten dituen gauza prebentiboei orientazioa deitzen dio, eta ez esku-hartze.

AIERBERen ekarpenak (93. Orrialdetik Aurrera)

4.familia garrantzitsua da; izan ere, eskolarekin batera, hasierna garrantzia gehien duen testuingurua da. Gero erkidegoa, zeren bertan ere gaitasunak garatzen ditugulako: sozialak, adimenarenak... Gizabanakoa bizitzan doan heinean, garrantzi gehiago komunitateari. Hasieran gehiago eskolari, familiari. Baina gero gizarteari, sozializatzen doalako geroz eta gehiago.

1.Eskola psiko eta psikopedagogia.

Batetik, eskolako psikologia dugu (beste batzuek hezkuntza psikologoak direla diote. Lehenengoak zerikusia du "resolutor" kontzeptuarekin. Arazoei irtenbidea topatzeko, diagnostiko bat behar dugu. Hortaz, arreta diagnostikoari jartzen zaio. Esku-hartze terapeutikoarekin harremana luke. Orduan, eskola-psikologoa arduraduna izango da de: gizabanakoak izan ditzakeen nahasteen tratamenduena. Aitzitik, hezkuntza-psikologoaren ikuspuntua zabalagoa da, eta nahiz eta testuinguru horretan jardun, beste hainbat profesionalekin jorratzen du, baliabideak kudeatzeko; hortaz, ez dago hain erdiratuta terapian, baizik eta baliabideak kudeatzean. Diseinatuko luke baliabideen kudeapena: zenbat logopeda ditugu? Zenbat ikasle ditugu logopedaren beharra dutenak? Hala ere, eskolaren psikologia kontzeptua gailendu izan da.

Gaur egun eskola psikologoa erabiltzen da bai resolutor bai baliabideak kudeatzeko dituen pertsonari.

Psikopedagogia, definizioz, hezkuntza-testuinguru anitzak barne hartzen ditu; ez soilik eskola, baizik eta bestelakoak ere (lantokietan, kasu). Bere esku-hartzerako eremua, beraz, zabalagoa da. Aldiz, eskola psikologoa eta hezkuntza psikologoa, eskolan.

2.ESKU-HARTZE MOTAK

- Eredu klinikoa edo laguntza-eredua. Lehenengoa erdiratzen da ikasleen zailtasunen errehabilitazioan, sendatzean, konpontzean. Eta aldagai bakarra hartzen du kontuan: gizabanako bat bakarrik aztertzen du. Ez du egoeraren azterketa egiten, baizik eta indibiduoarena; batez ere bere alderdi psikologikoetan.

- Eredu proaktiboa, prebentiboa, instituzionala, garapenezkoa. Egoerak aztertzen ditu. Zer eskaintzen dio erakunde honek ikasleari: programak, metodoak? Ez da gizabanakoan erdiratzen, zabalagoa da. Orduan, eskola-erakundearen osagai guztiak aintzat hartzen saiatzen da. Eta ikaskuntza-arazoei aurrea hartzea dauka helburu.KOMUNITARIO.....?

3. Ikusmolde epistemologikoak

Bi mota daude, eta continuum batean kokatu daitezke:

- Banakoa edo klinikoa den ikusmoldea. Garrantzia dauka ikasle/indibiduo bakan horrek garapen egoki eta normatiboa lortu dezala. Helburu zuzentzailea dauka. Arazoaren diagnosia du xede. Nahi duguna da jakin zein den bere disfuntzioa, eta disfuntzio horren etiología. Hori jakinta, mekanismo kaltetua zuzentzen saiatzen gara. Resolutor kontzeptuarekin lotua.

Faktore isolatu, oso behargarriak, kontrolagarriak, neurgarrietan erdiratuko da. Horrek dakar faktore guztiak (testuinguruak dituen guztiak) kontuan ez hartzea. Hala, faktore eragile batzuk kontuan hartzen badugu, eta ez denak, modu arinean/ez oso profesionalean jardutea dakar. Horregatik, beste polara jo beharko genuke:

- Eraikitzailea/konstruktibista/instituzionala. Alderdi orokorrak hobetzean erdiratzen gara. Testuinguru kalitadedunak planteatzen badira ikasle guztientzat, jada prebentzioa, garapena.. sustatzen ari gara. Guk aztertu eta aldatu behar duguna da: "egoera honek zein behar ekartzen dizkio ikasle honi?". Ikasle batek arazo bat aurkez dezake testuinguru batean eta bestean ez.

3. GAIA: ANIZTASUNARI ARRETA (hezkuntzaren ikuspuntura salto egiten dugu gai honetan)

*

* Ikaskuntza zailtasunak. Etiologiari dagokionez, badaude manualak edo eskuliburuak esanez zein sailkapen egin dezakegun ikaskuntza zailtasunen inguruan. Baina ez da gure interesa. Ez zaigu hainbeste inporta zein zailtasun dituen, baizik eta zein behar dituen. Beraz, IZ ez ditugu patologiko bezala definituko. Garapenaren nahaste bat bezala definitu dezakegu, eta kategoria deskriptibo bat da (hau da, gizabankoa deskribitzen duen ezaugarri bat litzateke). Kontzeptu zabala eta heterogeneoa da, eta IZei buruz hitz egitean, hitz egiten dugu gizabanako jakin baten ezaugarri intrintseko bat balitz bezala. "INTRINSEKO" izateak kontrastea egiten du "hezkuntza behar espezifikoak" terminoarekin. Nahastea linguistikoa izan daiteke, komunikazioan, arrazonamenduan...

* Hezkuntza behar espezifikoak. Kontzeptu interaktiboa izango da. Ez da zerbait pertsonala, ez genuke kokatuko gizabanakoaren barnean; aitzitik, kontzeptu erlatiboa da (ez kategorikoa), izan ere, según zein testuinguruetan dagoen, IZ bat izango da hezkuntza behar bate do ez. Haustura bate maten da gizabanakoaren testuingurua eta pertsonaren beharren edo zailtasunen artean. Hezkuntzak baditu baliabide multzo batzuk ikasleen beharrei aurre egiteko, eta ikaslearen zailtasunak hala ere ez badaude asetuak, hezkuntza behar espezifikoak sortzen dira, eta hala, testuinguruarekiko haustura gertatzen da.

IZ → intrintsekoa. Ikaslea, baldintzen arduraduna. HBE → testuinguruak du garrantzia. IZ bihurtzen da HBE, baldin eta hezkuntza-zentroaren baliabideak ez direnean nahikoak ikasle horren ezaugarriari erantzuteko. Eta erlatiboa da, zeren daukagu testuinguru bat non ikasle hori kokatzen dugun eta integratua dagoen etab. baina beste zentro batean ikasle berdina, HBEak behar dituen persona izan daiteke. Hau garrantzitsua da, zeren testuinguruan kokatzen dugu esku-hartzea; arazoa ez da indibiduoarena, bere maila sozio-ekonomikoa...

Testuinguruak bihurtzen du zailtasun bat behar batean.

ANIZTASUNARI ARRETA.

Warnock-en dokumentua: ikaskuntza zailtasun bat izango dugu ikaslea ez bada gai gehiengoaren erritmora joateko. IZ duen horrek gero beharra izan dezake, elkarrekintzan sortzen dena: ikaslearen ezaugarriak eta testuinguruaren (eskola-zentroaren) baldintza eta ezaugarrien arabera.

LISMI: lege honetan lau printzipio definitzen dira, lege bihurtzen dira, eta gero ondorioak dituzte hezkuntza-zentroetan. Ezintasuna duten pertsonen zuzendutako ekimenak lirateke.

- Normalizazioa. Pertsona hauek dituzten beharrei erantzuna ematerakoan zerbitzu ahalik eta normalenetatik/ohikoenetatik ematea. Arreta zerbitzu hauek arruntak izan behar dute, eta ez bereziak, persona bereziei arreta emateko.
- Eskolan txertatzea. Normalizazio kontzeptua litzateke hezkuntza-eremura eramanda. Pertsona hauek zentro publikoetara joan beharko lirateke.
- Sektorizazioa. Antonimoa da zentralizazioa. Zentralizazioari kontra eginez, arreta eskaintzen duten zerbitzu horiek behar horiek dituzten pertsonetatik gertu egon behar

dira. Ez du zentzurik behar bat duen pertsonak behar hori asetzeko 100km-tara joan behar izatea. Bere bizilekutik gertu izan behar ditu behar dituen zerbitzuak.

- Indibidualizazioa. Arreta pertsonalari egiten dio erreferentzia. Pertsona bakoitzak erantzun idiosinkratiko bat behar du; persona bakoitzaren gaitasun eta ezaugarriei egokitu behar zaie arreta.

LOGSE.

- Galeraren eredia gainditzen da. ez dira defizienteak diren pertsonak, baizik eta hezkuntza berezia behar duten pertsonak. Jada ez dira minusbalidoak, subnormalak... Sinpleki hezkuntza behar bereziak dituzten pertsonetaz mintzo gara.
- Ikasle guztientzako helburuak ezartzen dira; berdinak denontzat. Baina zer gertatzen da? Ikasle batzuk helburu berdinetara heltzeko laguntza gehiago beharko ditzutela: baliabide bereziak. Horiek ere, legez, doan eskaini beharko zaizkie.
- Gaitasun indibidualetara egokituko gara: idiosinkrasi hori.

PLANTEAMENDU KURRIKULARRA

- Espainiar Estatuak biztanleria eskolarrari zuzendutako planteamendu bat dago. Oinarrizko diseinu kurrikularra, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eratzen du. Zeini zuzenduta? 6-16 bitarteko haur guztiei zuzendutakoa. Gero kurrikulum hori kurrikulum bihurtzen du autonomia erkidegoak. Hau da, nolabaiteko egokitzapen bat egiten du. Euskadin eta Nafarroan, adibidez, bertako Historia propioa, Euskera... Curriculum hori baita ikastetxe bakoitzak egokitzen du: ez da berdina Bermeoko ikastetxe txiki bateko Donostiko ikastetxe handi bat. Testuinguruaren eta ikasleen ezaugarrietara egokitzen da curriculum, beraz. Egokitzapen hau zentroko **psikologoak edo orientatzaileak** egiten du.
- Era berean, ikasgelako programazio kurrikularra egin daiteke. Hau da, ikastetxekoa den programa hori, ikasgela edo ziklo bakoitzera egokitzen dugu. Egokitzapen hau ikasgelako edo zikloko tutoreak egiten du.
- Halaber, egokitzapen kurrikularra ere egin daiteke. Ikasgela batean dagoen ikasle batentzat edo batzuentzat. Behar batzuk dituztela zehazten dugu, eta gure zentroa ez dela gai bere ikaskuntza edo irakaskuntza-zailtasunei erantzuteko gai. Ez garenez gai, ezberdin eskatuko diogu, edo ezberdin esku-hartuko dugu ikasle horiek helburuak lortzeko. Hemen logopedek, medikuek, psikiatreek... parte har dezakete tutorearekin elkarlanean.
- Helburuak edo gaitasunak orokorrenetik partikularrerena joaten dira. Azken batean helburu nagusia da aniztasunari arreta eskaintzea.

EGOKITZAPEN KURRIKULARRA.

Zer dira egokitzapen hauek? Moldaketak. Moldatu egiten ditugu kurrikulumak ikasleen ezaugarrietara egokitzeko. Egon daitezke planteamendu kurrikular berezi bat eskatzen duten ikasleak; orduan, planteamendu berezi horiek egiteko burutzen dira egokitzapen kurrikularrak.

Tresna bat irakasleak erabiltzen duena ikaslearen ezaugarrietara egokitzeko. Ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta egiten da (indibidualizazioa). Beraz, irakasleak daukan planifikaziorako etarako estrategia bat bezala. Hauetan, moldaketa bat egiten dugu, eta segun ein den moldatzen duguna, EK ezberdinak bereizten dira:

- ZER aldatzea. Edukia aldatzea.
- NOLA irakastea aldatzea. Irakaskuntza aldatzea.
- NOLA ebaluatzea aldatzea. Ebaluazioa aldatzea.

Beraz, irakasleriaren tresna da egokitzapen kurrikularra.

OINARRIZKO IRIZPIDEAK.

1. Normalizazioa izango da gure abiapuntua. Horrek esan nahi du, laguntza berezi hori planteatzen hasi aurretik, galdetu behar diogu gure buruari: "gure ikastetxean badago baliabiderik denontzako baliagarria izan daitekeena?". Baliabide hori erabiltzea garrantzitsua da, hezkuntza-testuinguru horretan integratuta egongo delako, eta horrek normaltasuna bermatzen duelako.

Normalizazioa LOGSE eta LISMI legeetan jasotzen den zerbait da. Honen arabera, egokitzapen kurrikularra gradual aedo progresiboa da; hau da, aldaketak pixkanaka sartuko ditugu. Hala, aldaketa txikiak egingo ditugu, eta beharren arabera, aldaketak sakonduko dira.

2. Abiapuntutzat hartuko dugu ikasgelako kurrikuluma. Hezkuntza-proposamena berdina da, batez ere helburuei dagokienez.

EGOKITZAPEN KURRIKULAR MOTAK.

- Modu bat: sailkatzen ditugu aldatzen dugun kurrikulumaren elementuaren arabera.
- 1. Esanguratsuak/ez esanguratsuak. Bi horiek ezberdintzeko, zein elementu aldatzen den hartuko dugu kontuan.
- Esanguratsuak ez diren egokitzapenetan sartzen dira egunerokotasunean iraskaleak egiten dituen gauzak: beraz, aldaketak arinak dira, inespezifikoak (horiek zehaztea zaila delako). Metodologia edo ebaluazio-elementuak aldatzen dira. Aldaketa hauek prebentzioaren printzipioari erantzunez egiten dira: beharrak ez agertzeko. **EBALUAZIO-MODUARI edo ESTRATEGIEI BURUZ MINTZO GARA.**
 - Egokitzapen estrategikoak. Ez-esanguratsuak diren egokitzapenen multzo bat litzateke. Estrategiak aldatzen ditugu, baina zehazki, espazioari, materialari edo komunikazioari eragiten dioten elementuak aldatzen ditugunean.
- Esanguratsuak diren egokitzapenak. Elementu esanguratsuagoak aldatzen ditugunean. Helburuak aldatzen ditugu. Oinarrizko kurrikulumari dagokionez, aldaketa handiak ekartzen dituzte.

Lehenengo ez-esanguratsuak diren egokitzapenak burutuko ditugu, eta ez direnean nahikoak, esanguratsuak direnak. Azken neurri hau hartzea excepcionala litzateke, kasu berezietan.

ADIBIDEAK:

1. Helburuen sekuentziazioa aldatuko bagenu → ez-esanguratsua.
2. Demagun, hizki handiagoak erabiltzea diapositibetan → egokitzapen estrategikoa.
3. Demagun gatzelania menperatzen ez duen etorkin bat etortzen da; eta ikasgelaren helburu orokorrak eskatu arren, helburu zehatzak ez zaizkio eskatuko, zenbait eduki kenduz.
 - Beste modua: banako edo talde-egokitzapenak. Normalean ez-esanguratsua talde osoari zuzenduak daude; eta esanguratsua inbiduo bati zuzenduak izan ohi dira. Adibideak: motibazio-falta badago → ez-esanguratsua; kulturalki ez badago egokituta → esanguratsua.

ZAILTASUNAK IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUAN

Ikasleek zailtasunak bizi ditzakete beren I-I prozesuan. Zailtasunak anitzak izan daitezke etiologiaren aldetik, baina inporta zaiguna da zailtasun horiek sortzen dituzten beharrak. Ez ditugu ebaluatuko bakarrik ikasle horiek, baizik eta berau bere ingurunean/testuinguruan.

ESKOLA INKLUSIBOA

Delors txostena (1996). Lau zutabe ezartzen dizkigu, kurrikuluma jasotzen diren helburuak idazteko hasieratik aintzat hartu behar direnak.

Idea honetan oinarrituta, irakaskuntza.... Ikuspuntua izan daiteke klinikoa (patologietan eta oinarritutakoa) edo hezkuntza-ikuspuntua. Ez zaigu hainbeste inporta gizabanakoa, baizik eta kurrikuluma. Hau da gure aztergaia, eta baita ingurunea ere. (13-14 orrialdeak DARRETXE)

Zer da inklusioa? (18-19 orrialdeak; Eusko Jaurlaritza 11-12 orr)

Integrazioa: berezia den bat guztiei egokitzea.

Inklusioa: berezia izanik ere, egokitzapen bat behar ez izatea. Ez da berdina parte izan edo parte hartu. Inklusioan, ez da bakarrik talde osoaren barruan dagoela, baizik eta gai dela besteekin maila berean elkarrekintzan aritzeko, denek aukera berdinak dituzte (baldintza berdinetan) parte hartzeko... Ez da berdina integratuta sentitzea, edo inkluituta sentitzea.

Inklusioan, diferentzia balore bat bezala ulertzen dugu; ez arazo bezala.

1990. urtean LOGSE legearekin **hasten da inklusibitatea**. Esaten baitu integratu egingo ditugula hezkuntzan. Adibidez: eskoletan, 6-16 urte bitarteko behar bereziak dituzten haurrek hezkuntza zentro horietara joateko eskubidea aitortzen zaie. Inklusioan, oraindik ere gauza bat akatstun dago: gizabanako hori gehiengoaren errealitatera egokitu behar da. Hala, hezkuntza-prozesua haietzako ez da esanguratsua; zeren hezkuntza-prozesua dago gehiengoarentzat (normalentzat) zuzenduta dago. Hartara, GUZTIOI zuzendutako hezkuntza-prozesu bat gauzatu beharko litzateke; eta ez gehiengoari zuzendutakoa.

5 oinarri ditu hezkuntza inklusiboak:

- Aniztasuna onartzen duten ikastetxeak.
- Irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboa. Konstruktibismoari jarraiki, irakaslea da ikaslea gidatu behar duena bere ikaskuntza-prozesuan. Inklusioan, horrekin hasten

da. Askoz malguagoa da teknologia bat irakasle bat baino, ikasleen erritmo eta ezaugarri ezberdinetara egokitzeko. Halaber, ikasleen arteko lankidetzak sustatzen da.

- Eskolan eta lan kooperatiboan zentratutako laguntza.
- Gizartearen sektore guztien arteko lankidetzak. Ikaskuntza-komunitateetatik mintzo gara: eskola, gurasoak, udala, inguruko enpresak, erretiratuak, auzokoak...
- Curriculum zabala, komuna eta amalgama. Maila anitzeko curriculumez mintzo gara. Kasu hauetan, ebaluatzen eta jardueraren helburu ezberdinak planteatzen dituzte ikasleak. Irakasleak, lana egiteko modu ezberdinen existentziaz jabetzen da, eta beraiek proposatzen dizkiete ikasleei. Hala, inklusibitatea bermatzen da.

Maila anitzeko curriculumak planifikazio modu orokor bat litzateke, ahalbidetzen duena zeregin bat planteatzeko modu ezberdinak daudela, eta modu ezberdin horiek eta ... ezberdinak planteatzen dira.

Inklusioak bermatu behar du ikasle guztientzako aukera asistentziarako (Eskolara joateko), eta bertan parte-hartzeko. Halaber, ikasle guztien notak (errendimendua) aztertzen da.

*Inklusioaz mintzo garenean, guztiek parte-hartzen dute.

Inklusioan arreta berezia jartzen da arriskuan dauden taldeei. Hau ez da utopikoa: argi dago persona batzuek ezaugarri jakin batzuk izateagatik, arrisku-talde batzuen baitan dagoela: etnia ezberdinekoak izatea, emakumeak... Beraz, eskola inklusiboak arrisku-egoeran dauden pertsonen arreta berezia eskaintzen die, baztertuak izateko arriskuan daudelako.

ZER EGIN ESKOLA INKLUSIBOAK SORTZEKO? → Darretxe, 19-20 orrialdeak.

Legearekin tupust egiten dugu; izan ere baliabideak behar ditugu. Eskola inklusiboa bermatzeko hiru estrategia eraman beharko lirateke aurrera:

- Kultura inklusiboak sortzearen beharra. Hezkuntza-proiektuak ezartzeari dagokio. Honen harira, balioetatik mintzo gara. Hezkuntza-proiektu hauek zuzendaritza-taldeak, orientatzaileak, irakasleak, gurasoak, ikasleak... idazten dute, non batez ere baloreak zehazten diren, eta nola heldu hauek.
- Politika inklusiboak lantzearen beharra. Baliabideetatik mintzo gara. Adibidez: politika inklusiboak landuta dituen eskola batean, aurki daitezke irakasleak eskolako sarreran harrera egiten familiei. Eskola egitea irisgarria guztientzat (ranpa bat jartzea, zailtasunak dituzten ikasleak eskolara sartu daitezkeen)... metodologiak motak edo teknologia berrien erabilpena ere multzo honetan sartuko lirateke.
- Jarduera inklusiboak gauzatzeko beharra. Baliabide importante bat izango da irakasleetan gogoeta bultzatzea eguneroko praktika bezala. Noizbehinka irakasleak elkartu beharko lirateke inklusioari buruz hitz egiteko.

INDEX: hezkuntza inklusiboa ebaluatzen eta hobetzeko gida.

Herrialde askotara zabaldu dituzten tresna da, 39 hizkuntzatarako zabaldua. Bere helburua da hezkuntza inklusiboa ebaluatzea eta hobetzea. Nola? Parte-hartzearen bitartez. Hala, eskolatan ikaskuntza eta parte-hartzearen garapenean laguntzea du xede. Ikastetxe horretan

zein baliabide, etab dituzten aztertuko da, hobetzeko alderdiak ezarriko dira, eta prozesua berriz hasiko da.

Parte-hartzailea da zeren material honetan, ikaskuntza-komunitateko partaide guztien iritziak hartzen ditu aintzat: irakaslea, ikasleak, familiak...

INDEX-aren lan-prozesuak 5 fase ditu. Lehenengo hiru faseak ikasturte batean eramaten dira (bi hiruhilekotan) aurrera:

Faseak aurrera eraman aurretik, komunitateko kide guztiak kontuan hartu behar dituen tresna denez, ikastetxe osoa inplikatu da: protagonista eta partaide sentitzea saiatu behar gara. Testuingurua prestatu behar da, INDEXaren inguruan informatu behar da.

1. Prozesua hasi. Lehenik batzar bat edo koordinazio-talde bat sortu behar da. Hau da, bereziki helburu honetan jardungo duen talde bat. Koordinazio-talde horri dagokio ikastetxea sentsibilizatzea. Berez lehenagotik egin da, baina berriz ere egitea ez dago soberan. Kasu honetan ez da hainbeste informatzea, baizik eta sentsibilizatzea. Koordinazio-taldearen beraren ebaluaziotik hasiko dira, haien burua ezagutzen: beren iritziak, usteak... Ondoren, beste talde batzuekin lan egiteko prestatuko dira.
2. Ikastetxea aztertu (hiruhileko erdia eskatzen du). Errealitatearen diagnostiko bat egiten dugu, eta lehentasun batzuk ezartzen dira, zertan gehiago lan egin behar den zehazteko. Hobetu behar diren gauzak identifikatzen dira.
3. Hobetzeko lana prestatu (hiruhileko erdia eskatzen du). Ikastetxea hobetzeko plana prestatzen da. Identifikatu ditugun lehentasun horiek planean sartzen dira. Halaber, INDEX tresna eskolaren planifikazioan sartzen dugu.
4. Hobetu beharreko alderdiak ezarri. Lehentasun horiek praktikan jartzea tokatzen zaigu, jardueren bitartez. Oso inportantea da prozesuan zehar praktika horiek martxan jartzearekin ematen diren aurrerapenak identifikatzea.
5. Prozesua berrikusi. INDEXak eskatzen du prozesua etengabe berrikusteak. Prozesuak ez du soilik ikasturte bat irauten; urrunago joan behar da.

Benetan lortzen badugu aniztasunari arreta eskaintzea eta hezkuntza inklusiboa bermatzea, balore bat bihurtuko da INDEX hau, prozesuaren berrikustean.

Aniztasun funtzionala: termino berria da (duela 2-3 urte). Bizi-independentearen forotik ateratako definizioa (2005): desgaitasun hitza ordezkatzeko proposatzen da termino hau. Desgaitasun hitza kutsu negatiboa duen hitz bat da, gutxiago direnaren kutsua baztertzeko proposatzen da, beraz. Eta era berean, aniztasuna azpimarratzeko.

Denok ezberdintasunak ditugunaren ideiak, nolabait, konbibentzia errazten du: berdintasuna, parekidetasuna... Ikuspuntu bezala hitz egin beharko genuke nahi dugula kontzeptualizatu edo sortu komunitate bat anitza dena; eta ez komunitate bat normaltasunaren zibilizazioak definitutakoa (zer da normala, zer ez...). Normala izatea existetzen ez denez, aniztasun funtzionalaren kontzeptua definitzen da.

FUntzio bera Aurrera eramateko modu ezberdinak ditugu; hori da aniztasun funtzionalaren ideia. Zerbait egin behar dugunean, modu ezberdinak daudela. FUntzio bat izan daiteke komunikatzea; gehiengoak komunikatzeko hitza erabiltzen du, beste batzuek zeinuak erabiltzen dituzte. Funtzio berdinerako ez da bat gaituagoa delako eta bestea ez, baizik eta modu ezberdinak erabiltzen dituzte funtzio bererako. Beste funtzio bat da garraiatzea; gehienak hanken bidez egiten dugu; beste batzuk aulki gurpildunaren bidez. Espresio edo esapide hau (aniztasun funtzionala) errealitate bati dagokio. Onartzen dugu ere batzuetan persona batzuek dituen moduak ez dela gehiengoak erabiltzen duenaren berdina; kontua da eskubidea duela horretarako. Hartara, parte-hartzeko eskubide berdina duela onartzen dugu.

Gizarte-kontzientziak aldaketa hori egin behar du: desgaitasunetik aniztasun funtzionalaren paradigma/filosofia horretara.

JARDUERA ARRAKASTATSUEN IRAKURKETAN: Ikaskuntza instrumentala: gauzak egiteko beharrezko gaitasunak eskuratzeko ikaskuntza. Hizkuntzarekin (komunikazioa), mundua/errealitatea aldatzeko gaitasunekin (matematika, biología, fisika...) zerikusia duten gaitasunak.

IKAS KOMUNITATEA (ikas.kom)

Bertan aurrera eramaten diren ekintzak zientifikoki oinarria duten bakarrak dira. Adibidez, AMARABERRI proiektua ez du zientziak ebaluatu. Hau da, ikasle guztietan lortzen dituzte hobekuntza esanguratsuak. Kataluniako horrelako eskola batean, ikaskuntza instrumentaletan Kataluniako batez bestekotik gora puntuatu dute; bai eta adimen emozionalean, bizikidetzan, eta abar.

Talde elkarreragileak

Tertulia dialogikoak

30 minutu falta → 04/12/2017

KONTZEPTUAK ARGITZEN (egelako ariketa bat)

1. Hezkuntza inklusiboa → utopia bat da, zeren errealitateak muga asko jartzen dizkigu. Da pedagogía/paradigma bat, orokorragoa aniztasunari arretarekin erkatuz behintzat.
2. Hezkuntza behar espezifikoak. Según ikastetxeak zein eskaintza edukatibo egiten duen, ikaskuntza zailtasun bat beharra bihurtzen du edo ez. Horregatik, erlatiboa eta interaktiboa da.
3. Aniztasunari arreta. “Guztiontzako baldintzak hobetzen dira”. Arreta honetan egiten diren aldaketak egiten dira denen baldintzak hobetzeko ikuspuntutik; ez ikasle bakan batekiko aldaketak.
4. “Eskola ulerkorak ez du...”.Denontzako eskola=eskola inklusiboa=eskola ulerkorra=eskola demokratikoa hezkuntza inklusiboaren=konplexutasunaren pedagogiaren baitan sartzen da. **Hezkuntzak ez du soilik eskola barne hartzen, komunitatea ere bai.(Zergatik ez hezkuntza formala, ez-formala eta informala?)**
5. Hezkuntza behar espezifikoak. Lotzen da egokitzapenekin: moldaketak egiten dira: estrategiak aldatzea helburu berdinetara iritsi ahal izateko eta abar.

*Aniztasuna normalki joaten da prebentibora; hezkuntza behar espezifikoak erreaktiboa.

6. Ikaskuntza zailtasunak. Ez zaigu inporta jatorria, etiología; baizik eta sortzen dituen beharrak edo sintomak, behar horiei aurreratzeko. Zeren ez bagara aurreratzen, hezkuntza behar bihurtzen dira.
7. Hezkuntza inklusiboa. Antolakuntza, egituraz... mintzo da. Hots, nolakoa izan beharko litzatekeen hezkuntza.
8. Hezkuntza inklusiboa. Bertan, ez dago adinen arabera taldekatzea. Adin-aniztasuna azaltzen da deskripzioan. “Ikerketa bidezko ikaskuntza” ere. “Interesen arabera”.

5. GAIA: EbALUATZEA: alderatzea, konparatzea. ZEr eskatzen du? BI ekintza:

1. Deskribatzea. Hemen egiten dena da ebidentziak jaso, programa hori deskribatzen dutenak. Eta ondoren, balorazio bat egiten dugu; ebidentzia horiek baloratzen ditugu, eta hartara, irizpide batzuk zehazten ditugu. Nola diseinatzen da ebaluazio bat? Erabaki behar dugu zer konparatu behar dugun zerekin. Bikoteak konparatzen dira. Adibidez: zergatia ondorioekin. Espero genuena, lortutakoarekin. Prozesua, emaitzekin.

Hala, programa batean hiru elementu importante ditugu:

- Aurrekariak. Programa martxan jarri aurretik, hartzaileetan existitzen den edozein baldintza, eta emaitzetan eragina izan dezaketenak. Adibidez: ikasleen aurrezagutzak, edo zein eskaintza egiten duen ikastetxe baten beren ikasleei.
- Prozesua. Behin programa martxan jartzean gertatzen diren elkarrekintzak hartzaileen artean edo hartzaile eta material didaktikoaren artean. Prozesuan jarduerak proposatzen ditugu, euren arteko elkarrekintzak jazotzeko. Baina baita galde-sortekin interakzioan egoteko. Prozesuak guk diseinatzen ditugu helburu batzuekin.
- Emaitzak. Emaitzak dira prozesuen ondorio. Beraz, esku-hartzeen bitartez sor daitekeen edozein ondorio emaitza litzateke. Emaitzei INPAKTU dei diezaiekegu. Adibidez: adimen emozionala landu bada ikasgelan esku-hartze baten bidez, ea gero aplikatzen duten familirekin, beren lagunekin...

STAKE(1973): Ezkerreko zutabea hipotetikoa da, eta eskuinekoa, enpirikoa, programa martxan jarri denean. Zeri deitzen diogu kongruentzia? Esperotako eta behatutako elementuen arteko adostasun-mailari. Hau ematen da aurrekari, prozesu eta emaitzetan. Eta kontingentzia? Programek ongi josita egon behar dute. Ea guk proposatutako jarduerak (prozesuak) eratorri behar direla guk esperotako aurrekarietatik. Emaitzak lortzen dira prozesuekiko koherente.

AD: 198. Orrialdean (non?): autobehaketaren bitartez erregistratu beharko du zenbat portaera erasokor izan dituen (hori da esperotako prozesua). Eta programa Aurrera eramatean jasotzen duguna da: bai, erregistratu dituzte, baina portaerak oso muturrekoak zirenak. Hala, alde handia ez dago, baina badago. Ez da %100ean esperotakoa egin.

Beste adibide bat: esperotakoa izango da adostasunak ezartzea beren ingurukoekin (ikasleak, familia...), baina benetan ikusitakoa izan zen lagun eta senideekin izan zela, eta ez ikaskideekin. Gainera, adostasun horiek kontzeptu ezkorrekin egin zela ikusi zen: "konprometitzen naiz "x" eta "y" ez egitea.

2. Baloratzea, juicio bate matea.

*Garrantzitsua. Bi aukera ditugu:

1) Patroi absolutuak erabiltzea. Ez goaz liburuetara, baizik eta pertsonetara: galdetzen diegu persona horiei zer uste duten izan behar duela gure programak. Iritzi horiek jaso daitezke hainbaten partetik: programaren hartzaileak, programaren diseinatzaileak adituak, entzuleak... Beraz, IRITZIAK hartzen dira aintzat, programak izan beharko lukeena argudiatzen dutelarik. Zurrunagoak dira diseinatzaile adituak.

- 2) Patroi erlatiboak erabiltzea. Beste programa bat erabiltzen da gure programarekin konparatzeko. Hau da, beste programa horrek diseinatutako prozesuak edo lortutako emaitzak erabiltzen badira gurearekin konparatzeko, patroi erlatiboak erabiltzen ari gara. Beraz,

*2. Eredu honetan (baloratzea) baita elementu berdinak ditugu: ... , prozesuak eta emaitzak.

ARIKETA EGELA

1. Beharren ebaluazioa=errealitatearen diagnostikoa. Zuzenean hartzailleekin egin dezakegu, edo literatura zientifikora jo. Nola justifikatzen da programa bat? Beti beharrei erreferentzia eginez.
2. Programa horren bitartez lortu dituzten ezagutzek, ahalbidetu du ikasle horietan transferentzia bate gotea emaitzena; hau da, lortutako emaitzak ez dira zuzenean esperotakoak gure prozesuarengatik; harago joan da. Zeren hasieran espero genuen pixka bat hobeak izatea alfabetizazioan, baina gehiago lortu dugu.
3. Monitorizazioa. Gakoa dago “eskola bakoitza amaitu ondoren”. Erdibideko ebaluazio bat da; ez amaieran egiten dena. Nahi duguna monitorizazioarekin da gure programaren alderdi konkretu batzuk ezagutu, eta horrek aukera ematen digu martxan dagoen bitartean aldaketak egiteko.

Kobertura: planifikatuta genuen hartzailleetara ea heldu garen. Gerta daiteke ez heltzea, edo gehiagotara heltzea. (¿?)

EMAITZAK NEURTZEKO MODU EZBERDINAK DAUDE